

Heriotza eta heriotzaren inguruko ohitura batzuk

Juan Garmendia Larrañaga
Etnologoa

Etnografiari esker gure elkarte txiki batzuetan heriotza nola sentitu eta adierazi den ikusiko dugu. Horrela, banaka, kanpaia, hildakoari gaubeila, baserriko abereei berri ematea, hilotza etxean denean leihoak itxita egotea, etxeko fatxadako armarria oihal beltzez estaltzea... deskribatzen dira. Honez gainera, gorpua konduzioari loturik dagoen hainbat usadio: hildakoaren auzokidea segizioburu izatea, negar egiteko emakumezkoak kontratatzea, serora figuraren errol garrantzitsua, hileta orduko eskaintzak (ogia, ardoa, idiak, ahariak, etabar.), gorpua hilerriraino laguntzea, han lur-apur bat edo harriren bat gainera jaurtiz amaitzea, hileta-elizkizunak ongi hornitutako mahai baten inguruan bukatzeko ohituraren iraupena, hildakoen eta bizidunen arteko harremanak luzatzea...

Basing on the ethnography, we will see the different ways death has been felt and expressed in some little communities close to us. In this way, the bell, the funeral wake, making known to the animals of the farms, keeping the windows closed while the corpse is within the house, covering the shield of the house front with a black cloth... are described in the article. Furthermore, some customs related with the conduction of the corpse: a neighbor of the dead man or woman leading the conduction, contracting women to cry, the important role of the nun, the offerings after the funeral (bread, wine, bullocks, sheeps...), the accompaniment to the corpse up to the cemetery, and, once there, throwing ground or little stones on, the continuity of the religious acts in a very well supplied table, the prolongation of the relationship between dead and alive people.

San Fermin ondorengo egun haue-
tan, egokia iruditzen zait Haustere-
-egun goizean Mañeruko aurorok
kalez kale abesten zutena gogoratzea
(Garmendia 1984).

Despierta hombre, despierta,
despierta para tomar
la ceniza en la cabeza,
y allá podrás contemplar
que al cabo de poco tiempo
en el polvo has de parar.
Entre la podre y gusano
hasta el Juicio Universal.
No desprecies este aviso
que el señor te viene a dar,
despierta como te digo,
vamos a misa a rezar.¹

Kontsiderazio hauek urteak dituen
beste ospakizun batzuetara zertxobait
zabaltzen baditugu, zera aurkituko
dugu, alegia, neguko solstizioa zela
eguzkiaren sorrera –Aureliano erro-
matar enperadoreak K.o. 274. urtean,
abenduaren 25a ezarri zuen *eguzkia-
ren sorreraren* data bezala–, eta berri-
kuntzaren, berpiztearen adierazpena
suposatzen zuen, hots, heriotzaren au-
rretik gertatu ondoko berrikuntza edo
berpiztea. Ez dezagun ahantz naturak
bere-berea duela berpizteko grina hori.

Eta neguko solstiziotik udakora
igaro bazen, Amaiurko kasuan, esate
baterako, jaso dut, nola ama batek
baino gehiagok jauzi egiten zuen sua-
ren gainetik ekainaren 23ko gauean,
gaixorik zuen haurra besoetan hartuta
«San Joan, San Joan, oroitu nere
umeaz, kuratu nere umea!» esanez.²
Ezagutzen ditut San Joan eguneko
goizean bedeinkaturiko belarrei *belar
onak* izena ematen dioten hainbat
herri. Belar-sorta ganbaran jasotzen

zen edo jasotzen da, eta urtearen
joanean familian heriotzaren bat gerta-
tuz gero *belar on* horietako batzuk egosi
eta ur horrekin hildakoaren gorpua
garbitzen zuten. Esan duguna kontuan
hartuz, ez gaude heriotzaren inguruko
ohituren denboran murgildurik, baina
izatez, orain arte esan dudana ohar-
tuz gero, ez dago zalantzarik heriotza
beti inguruka dugula.

Ez dago esan beharrik, heriotzak be-
rekin dakartzan ohiturak garrantzi han-
dia izan dutela gizonarentzat gure mun-
du zabal honetan zehar. Gure artean,
gure herri eta auzoetan, heriotzaren in-
guruan erabili diren ohiturak sakratuak
eta aberatsak izan dira, eta arrunt
errespetatuak, batzuk kristautasunaren
aurretik hasita, gizaldietan zehar.

Ikustea izango duzunez, hil-bide
bereziek, eliz opariek, gorpuari lur
emateak etabarrek, zerikusia izan dute
gizonaren munduan, askok gaur hone-
la uste ez izan arren.

Malraux-ek dioenez, gizakia omen
hil behar duela dakien abere bakarra.
Bizia eta heriotza bi errealitate bana-
ezinak dira.

Erlijio guztien pentsakeraren bar-
nean, bizia heriotza da, eta heriotza,
berpiztea, bizia.

Mundu honetan, dena prozesu ebo-
lutibo baten menpean dago, eta ebo-
lutioaren arlo honek ez dio ihes egiten
gizakiaren pentsamenduari, zenbaite-
tan bere mentalitatearen erabateko
aldaketarekin, hau heriotza bezalako
ezin saihestuzko gertakizunen jokaere-
tan islatzen baita.

1. UEUren Iruñeko Udako Ikastaroetan emandako hitzaldiaren testua da artikulua honetan biltzen dena.

2. Amaiur: Juan Manzano Amorena –78 urte–. *Errekaldea* etxea. 1983, abuztuaren 4a.

René Girard-ek dioen legez, «Garai bakoitzak bere erara antolatu ohi du jakintza (...)». Giza ikuspegia baldintzaturik dago betiere, eta ondorioz, aldakorra da. Eta arestian aipatu dudan esaldia, alegia, arlo interpretatibo teorikoari dagokio.

Objektu beraren behaketak, sarri askotan, gizakia ez du iraganaldian ez eta etorkizunari buruz irudikapen edo oroitzapen berera eramanez; biharko gizakiari dagokionez huts egiteko arrisku handirik gabe egin dezakedan kontsiderazioa da hau, izan ere berau atzemateko ez baita baliagarri memorizatzea. Arraunlariak itsasoan sartzerakoan arrauna lurraren gainean bermatzen duen bezalaxe –eta orain urte anitz irakurri nuen gauza da hau–, hots, gu iraganean, historian, oroimenean oinarritzen gara, etorkizunera inguratzeke, hurbiltzeko. Eta hau askotan oharkabean egin ohi dugu.

Alabaina, kontuan eduki behar da errealitate ezagun eta bizitakoari ez dagokiona lur sendoaren laguntzarik gabe garatzen dela, lur egongaitz eta mugikorrean alegia.

Teoriaren esparruko hausnarketak Samaniego alegilari goiargitua dakarkit gogora, zeinak bere aparteko graziarekin, ironia fin eta egokiarekin idazten baitzion Markinako lagun bati: «Al bendito D. Pablo Pedro (de Astarloa) dígame Ud. que para una obra que pienso escribir de antigüedades antediluvianas me diga (puesto que él debe saberlo) cómo se llamaban en el Paraíso terrenal los escribanos, sastres y zapateros. Dele V. un abrazo de mi parte...»

Biasteriko alegilaria aipatu dudanez gero, esan dezadan gerorako utzi gabe, bere testamentuko beste xedapenen artean, honako hau agertzen dela:

«que sobre su sepultura ardiesen doce hachas y dos velas de cera, durante nueve días de su novena». Aipamen hau, Emilio Palacios Fernándezek idatzi *Vida y obra de Samaniego* liburutik jaso dut.

Atzera itzultze labor honen ostean, ez gaiari buruz, bai ordea leku eta denborari buruz, Hobbes ekarriko dut gogora *Leviatan*-en dioena bilduz. Kontuan hartu beharreko gogoeta bat baino ez da gure saiakeran (1976: 30): «Las cosas que se nos proponen para que las creamos que están por encima de la oportunidad humana, la explicación no las hará más evidentes, sino, por el contrario, más oscuras e increíbles».

Hemen ere, ez dator batere gaizki Telesforo de Aranzadik eginiko gomen-dio zuhurra: «No nos fiemos de nombres aprendidos de memoria en las lecturas sin conocimiento directo del objeto, pues es una gran mentira aquello de yo con erudición cuánto sabría» (*Yakintza*, III. 46. orr.)

Errittoa bat-batekoaren aurkakoa da, eta jakin badakigu heriotzaren aurrean gizakiak duen ezintasunak, bere babesa eta itxaropena izaera desberdinetako erritoeetan gauzatu nahi izaten dituela, beraietan bilatzen baitu jainkoen laguntza eta babesa. Jainko hauei ardurara eta zainketa eskatzen zaie, ez bakarrik beste munduko biziraupenari dagokionean, baita bizitzako zeregin desberdinetarako ere.

Beroa bizia dela esango dut eta hotza dela heriotza. Bizia-beroa. V. Gordon Childe-ek (1971: 72) dioenaren arabera:

Históricamente, el hecho más notable acerca de los musterienses es el cuidado que ponían en el arreglo de los

muerdos (...). Los muertos no sólo eran enterrados cuidadosamente; además, sus tumbas eran colocadas cerca del hogar, como si dieran calor a sus ocupantes. El muerto era provisto de utensilios y de comida.

(...) No creyendo en el cese completo de la vida terrenal, se imaginaron oscuramente alguna especie de continuación de ella, en la cual el muerto tendría necesidad de alimento material y de utensilios (...).

Heriotzaren inguruko aztarnak bezala izendatu ditugun hauek, ibilera aldizkatuaren lekuko dira, gizaki bakoitzak denbora ezezagunetatik egundaino eraman duen ibileraren lekuko, alegia.

Gainetik bederen, gure elkarte txiki batzuetan heriotza nola sentitu eta adierazi den ikusiko dugu, heriotzak berekin dakartzan ohitura batzuetan.

Ondorengo komentario hau Emile Verhaeren eta Dario de Regoyosen *España negra* liburutik hartu dut:

Llegó a distinguir los toques de entierro, de párvulo, de salida de viático y aún el de agonía, esas cinco campanadas que seguidas de un silencio anunciaban en Guipúzcoa cuando alguien se muere.

Le chocaban estas cosas y era natural que le chocasen. Ya sabemos que hay que tocar a muerto; pero ¿para qué anunciar el momento crítico de la agonía? ¿No son estas cosas propias de un país que es amigo de la muerte?

Kanpai-hots desberdinek zenbait herri jakinetan duten esanahiaz arituko naiz; are gehiago, kanpaiak literatur obra anitz eta bikainen aierupenkari izan direla esango dut jarraian. Horietariko bat Rafael Larunberen "Las

campanas viejas de mi pueblo" izenburua duena da, Isidoro Fagoaga agurgarriak sorturiko *Guernica* aldizkariaren 21. zenbakian argitaratua, eta Gregorio Mujikaren artikulua "Recuerdos de mi País – Campanas de Aldea", Buenos Airesen *La Baskonia* aldizkarian 1907. urtean kaleratua.

Honela dio Rafael Larunbek:

Las campanas de las iglesias modernas, de estas nuevas iglesias de gusto exótico llenas de colorines y de purpurnas, con santos que parecen obras de confitería, no son tan sugestivas ni tienen ese aire de austeridad de las antiguas.

En cambio, ¡qué lenguaje tan tierno, tan alegre o tan triste, tan solemne o tan juguetón y, sobre todo, tan distinto y tan distinguido tienen las viejas campanas... Las viejas campanas de la iglesia de mi pueblo...

Eta Gregorio Mujikak:

Esa venerable campana, al ver que ese sacerdote humilde acudía a unir con Dios a nuestros abuelos que agonizaban, pidió en lamentaciones tristes que el pueblo le acompañara. Y el pueblo le acompañó.

Esa misma campana venerable vio desde su altura morir a nuestros padres, y allá arriba, junto a las nubes, bajo la cruz, vibró con fúnebres acentos, y llorando, pidió en lacrimosos salmos que el pueblo rezara. Y el pueblo rezó.

¡Oh, vieja campana! Tú que clamaste solícita por mi ascendencia adorada, tú que guiaste amable los primeros pasos de mi juventud, guarda el último eco de tu voz ronca y débil para lanzarlo cuando me veas caminar por el lugar donde condujeron a tantos que lloraste y que no han de volver!

Mezulari dugu kanpaia, berriemaile, beti mintzatzen ari zaigu. Gares herrian, esaterako, Ihauteri Astearte eguerdian, Santio eta San Pedro parroketako kanpaiek festara deitzen zituzten nekazariak. Donamarian parrokiaren dorreko bi kanpaien iraulpe- nek urteroko erritua jarraituz *San Joan sua* pizteko garaia heldu zela jakinarazten zuten³.

Kanpaiaren joaldia bazuen *hamarrena* delakoarekin zerikusirik, 1807.eko irailaren 9ko Kontseiluaren aginduan Gipuzkoako Korrejidoreari jakinarazten zaion legez, zeinak besteak beste honela dioen:

(...) defendemos firmemente que de aquí adelante ninguno sea osado a medir ni coger su montón de pan que tuviere en limpio en la era sin que primero sea tañido con la campana tres veces para que vengan los terceros o aquél que debe recaudar los diezmos.

Esan ohi da, Urte Zahar gauean Velillako kanpaiak bere kasa jotzen zuenean, urte txarra iragartzen zuela. Alabaina, Ricardo Palmak *Tradiciones peruanas* lanaren V. liburukian dioen bezala:

Todo, todo en la tierra
tiene descanso;
todo..., hasta las campanas
el Viernes Santo.

«Kanpaia edo ezkilan mezua izkuntza ziorra izan da erri txikietan. Arantzako erbarruan sei ezkila-joaldiz aditzera ematen ziren elizakoak –iru

aundiz eta beste iru txikixeagoaz– eta baserriko gaixoarengana irteten denak kanpai andiaren iru dandara izaten ditu aurretik»⁴.

«Ogeita amairu kanpaikadaz aditzera ematen zuten Lizartzako herritar baten agonie, gertaera ontan eriotza zana. Dei onen ondoren il-kanpana jotzen zan»⁵.

Abaltzisketan, haurra hiltzean bizkor jotzen da *aingeru txintxiñe* deritzana, Arantzan *txintxirria* eta Tolosan *txintxiña* deitzen direna bera da⁶.

«Aur baten –aingeru baten– heriotzaren berri tristea emateko Berastegin, ezkila txikia eta aundia txandaka jotzen ziren. Erri onetan bertan ogeita amairu ezkile jotzen ziren gizonezkoa iltzean, amaseigarren eta amazazpigarren ezkilan artean beste txikiago bat tartekatuz. Emakumea iltzean, ogeita amairu ezkilak jotzen ari zirela, kanpai edo ezkila txikiaren iru dandara entzuten ziren. Ildakoa ezkongabea esan det, baldin bazan, aipaturiko ogeita amairu ezkilan ondoren, dandara bizkor eta jarraitua jotzen zan ezkila beraz.

Kanpaialdia zertxobait luzea izan da baina ez astuna, beraz jasankorra izan da»⁷.

«Nor bait iltzean auzoak, adiskideak eta aideak zenduaren etxera iristen dire eta gorputzaren bella egiten ematen dute gaua, *bellan* (Berastegi), *gaubelan* (Azpiroz), *gauillan* (Arantza, Berroeta), etab.»⁸.

3. Garesen: Mateo Iratxeta Pérez –78 urte–. 1971.eko ekainaren 18a. Tomamerian: Eulalio Orbeogo Arrieta –69 urte–. *Suainea* etxea–, 1986.eko irailaren 2a.

4. Arantzan: Anunciación Bértiz Apezetxea –74 urte–. 1975.eko uztailaren 23a.

5. Lizartzan: José Antonio Zabala Garmendia –60 urte–, 1982.eko abuztuaren 22a.

6. Tolosan: Inazio Garmendia Zubeldia (Abaltzisketan jaioa) –58 urte–, 1950.eko urriaren 13a.

7. Berastegin: Amada Etxeberria Matxinea –72 urte–. *Borda Txuri* baserria, 1975.eko apirilaren 4a.

8. Berastegin: Amada Etxeberria Matxinea; Azpirotzen: Joakin Soroeta Arozena –84 urte–. *Iriarte* baserria, 1975.eko uztailaren 23a; Berroetan: Konzezion Irigoien Urrutia –72 urte–. 1982.eko uztailaren 22a.

«Leku baten baño geiagoetan, aipatutako auzoak zenduaren etxetik bi etxe urbillenak izan dire, *barridiak* (Elizondoko Bearzun auzoan) edo *barri-deak* (Berroetan) deituak»⁹.

«Berastegiko *bellan* ardo-aundie artzen zuten. Ardo goxoa eta galleta batzuek. Beste erri batzuetan berriz, kafea etab.»

Hildakoari gaubeila egiteko ohituraz hitz egiten ari garenez gero, Vicente Risco-k, Ramón Otero Pedrayoren *Historia de Galiza* obran (1979: 598, 601) jasotzen den *Etnografia*, I. liburukian dioena azalduko dut:

La familia rodea al difunto puesta de luto desde el primer momento. Vienen los vecinos y parientes de lejos para asistir al velatorio durante toda la noche. A veces son tantos los que se concentran que ceden los pisos y caen todos a la cuadra de los cerdos que está debajo de la habitación principal.

Los familiares más allegados lloran, gritan y levantan la voz recordando las virtudes del difunto y expresando sentimientos de su pérdida. Recuerda la costumbre antigua del pranto (llanto).

Durante el velatorio las mujeres rezan muchos rosarios y no comen nada hasta después del entierro. Los hombres en cambio, a la entrada de la noche comen y beben a veces en exceso, regularmente pan, carne, vino y aguardiente.¹⁰

Senitarteko baten heriotza, etxejaun edo etxeakoandrea bereziki, zenbait herritan, baserriko abereei jakinarazten zitzairen, eta, zenbaitetan,

ikuiluratutako aberea zutituarazten zen berri tristea jakinarazteko unean. Erleak bere garaian gogoratuko ditugu.

Elizondoko Beartzun auzoan, Nafarroako beste zenbait herritan bezalaxe, dolumina agertzerakoan honako hau esaten zen «osasuna enkomendatzeko» –osasuna hildakoaren alde otoitz egiteko– hitzez hitz esanda.

Hildakoa etxean dagoen bitartean, leihoak hertsirik edukitzen dira. Heriotza baten ondoren, behie *gareak* edo zintzarriak kentzen zitzaizkien urte betez. Alabaina, ez ardiei, zintzarria ezinbestekoa baita mendian non dabiltzan jakiteko.

Etxeko fatxadako armarrria oihal beltz batekin estaltzen zen. Gazteek adiskideekin egotea saihesten zuten urte betez, eta hiru urtetan ez zuten ez dantzarik egiten ez eta erromerietan parte hartzen ere.

Ehorzketarako, Aita Larramendik esaten digu (1969: 224), hildakoa etxeko gela nagusian kokatu ohi dela. Apaizak etortzen direnean, gorpua jaso eta prozesioa abiatzen da; *konduzioa* esango nuke nik. Eta hara «onela abestu zun nere erritan izan zan Baleriano Mokoroa olerkari edo poetak»:

Gorputz zurean billa urbildu
Diranakin bat apaizak,
Zeruan ere eraso ditu
Beldurgarrizko ekaitzak.
kaskabikoaz erretzeraiño
Landare ta zuaitzak:
Ba-zirudien damu zuela
Zu gabe letozken gaitzak.¹¹

9. Bearzun (Elizondoko auzoa): Maria Istilart Arraztoa –53 urte–, *Anzan bordandia*, 1982.eko uztailaren 29a.

10. Galizieratik gaztelaniara eginiko itzulpena Quirogako (Lugo) nire adiskide eta maisu den José Estevezi zor diot.

11. Baleriano Mokoroa: *Elosegitar Antonio'ren ileta*, Aita Onaindiaren *Mila Euskal-Olerki Eder* –III–, 791 orr.

Etxeko hormaren ondoan, teilatagaren azpian, bataiatu gabeko haurra ehorzteko antzinako eta batere berria ez den ohitura gogoratu baino ez dut egingo. Zenbait herri ezagutu ditut –Abaltzisketa, Elduain, etab.– bataioa hartu gabe hildako haurrak ehorzteko hilerri edo *linboa* zutenak, baina ez dut inoiz ehorzketarik ikusi ahal izan.

Azter dezagun orain gorpuaren konduzioa.

Gorputzak elizarako bidean igaro behar izaten zituen albo-sailetan ez zen zilegi ezer eraikitzerik eta bidegurutzeetan erresponsoa errezatzen zen, era berean zenduaren lastaira erretzen zelarik.

Hildakoaren etxetik elizaraino hiletasegizioak egindako bideari *elizabidea* (Baigorri) *Korputzbidea* (Gipuzkoako Gaintzan) eta abar luze bat osatzen duten izenez deitzen zaio¹².

Gorputza eramaten zutenei, auzoko hurbilekoenei, *hilkarreariak* deitzen zitzairen Eskiulan eta Urdinarben (Zuberoan), *hilketariak* Baigorri eta *garrayariak* Berroetan (Baztanen), beste zenbait izenen artean, *defuntu-ketariak* esaterako¹³.

Berastegin *alde-etxea* deitu izan zaio baserri apartekotik dakarten gorpuari abegia egiten dion etxeari. *Alde-etxera* –elizatik hurbil dagoen etxe honetara– joaten dira apaiza eta *simoneroa* (monagilloa), eta segizioak elizaraino jarraitzen du.

Gipuzkoako Aia herrian entzun daiteke *aurrekoa* izenez ezagutzen zela emakume ezkongabea eta hildakoaren auzokoa, argizari bat eta ogi bat hildakoaren segizioan eramaten zituena. *Aurrekoa* segizio buruan zihuan apaizaren atzean kokatzen zen¹⁴.

Hildakoen inguruko gogoeta hauekin burura dator kit Juan Garbizu *Zubigar* olerkariaren kantu nostalgiko eta sentikorra, *Bide hertzeko gurutzea* izenekoa. Adiskide baten heriotza oroitzen duen gurutzea.

Ain maite nuan adiskide baten
Zorigaiztoko eriotz latza
Adierazten dit hasi ondoan
Tente dakustan gurutze beltzak.

Egun illuntsu tamalgarria
Oroitzen dit, bai, gurutze itzalak,
Ta au ikusten, ezin aztu, ba,
nere adiskidea emen il zala...!

Gurutze beltza larrak artua
bi txoritxo illak bere oñean...
Beazunetan igeri daukat
nere biotza une onetan...¹⁵

Jarrai dezagun aurrera oroitzapen labur hau egin eta gero.

Areatzan esan zidaten *aurogie* deitzen zitzaiola hildakoaren auzokideari, eta alde aurretik bere egitekoa betetzeko izendatua zenez gero, bera zen gorpuaren segizio buruan joaten zena. *Aurogiek* buruan, *burukote* baten gainean –egun ohitura hau ia erabat desagertu da– saski bat eramaten zuen etxean eginiko bi kiloko ogi batekin, hildakoaren familiaren kontu izaten

12. Baigorri: Marcel Errotabehere –72 urte–. *Berroa* etxea, 1982.eko irailaren 5a. Gaintzan (Gipuzkoa), Tolosan jasotako berria: Bizenta Uria Ameztzi –44 urte–. Gaintzako *Araneta* baserrian bizia, 1971.eko abuztuaren 29a.

13. Eskiulan: René Bédéarrax –64 urte–. Eskiulan jaioa. Baigorri: Marcel Errotabehere. Berroetan: Kozezion Irigoien Urrutia –72 urte–, 1982.eko uztailaren 22a.

14. Aian: Maria Aurizenea Gesalaga –73 urte–, 1980.eko apirilaren 20a.

15. Garbizu'tar Jon, *Zubigar: Bide ertzeko gurutzea*, Aita Onandiaren *Mila Euskal Olerki Eder*, –II–, 869 orr.

zelarik. Saskia borobila izan ohi zen, zapi beltz baten gainean beste zapi txuri bat zuela, eta *aurogiek* elizako hilobian ipintzen zuen. Gaur egun hilobi hau sinbolikoa baino ez da; beste garai batean hilak lurperatzeko lekua eta etxearen luzapena izan ohi zen¹⁶.

Tolosan Izaskungo Ama Birjinaren kofradiaren oharretan, 1604. urteari dagokionean, hain zuzen, zera azaltzen da:

en muriendo cualquier cofrade se ha de decir por su ánima una misa (...), y otra al cabo de un año, hallándose en ellas los cofrades de la dicha Cofradía con sus candelas de cera, apercibiéndolos primero con campanilla por las calles, y si el difunto fuere de la villa han de ir los cofrades con los candelones a enterrarle.¹⁷

Tolosako Udalak ehorzketari buruz 1626ko otsailaren 27an hartutako erabaki batek, agintzen du:

Que sobre las sepulturas de los difuntos por demás calidad que sean, no se pongan más que los cuatro candelones de media libra de cera amarilla.

Desde la casa del difunto a la iglesia donde se enterrase no se pueda dar ningún responso en las calles, por ser cosa muy indecente y no se hace en parte ninguna, porque los respuestas se han de dar en dicha iglesia y no en otra parte.

Item que no puedan vestir de luto a ningún pobre, ni con otro vestido ninguno para acompañar al difunto con hacha ni sin ella, y que si les quisieren vestir lo hagan de por sí, por ser limosna más santa delante de Dios.

Item que ninguna persona de cualquier calidad y condición que sea no pueda llamar a clérigo que sea de fuera de la villa, para entierros y demás oficios que hiciere por difuntos en la dicha parroquia y conventos y basílicas, por haber en la dicha villa y conventos suficiente copia de clérigos y religiosos.

Si han de venir los frailes de San Francisco, dirán doce misas el día del entierro, otras doce misas el día de la novena, y otras doce al cabo del año. Total treinta y seis misas, que se darán todas ellas en la parroquia, y por todo se les haya de dar diez ducados y no más.

Berliozen Memoria atsegín eta interesgarrietan (212) honako hau irakurtzen dut:

(...) me había sentado cerca de una columna para ver agitarse los átomos en un espléndido rayo de sol poniente que atravesaba la naciente oscuridad de la iglesia —en Florencia—, cuando un tropel de sacerdotes y de portadores de antorchas entró en la nave para una ceremonia fúnebre. Me acerqué: pregunté a un florentino por el personaje que era objeto de ella: ¡Es una casadita, muerta este medio día!, me respondió con expresión alegre. Las oraciones fueron de un laconismo extraordinario, los sacerdotes parecían, nada más empezar, deseosos de concluir.

Berlioz hileta-ospakizuneko xehetasunez luze mintzatzen da.

Beste aztertzaile batzuen artean, Larramendi ere *hiletari* edo erostariez arduratzen da, eta beste honenbeste esan dezakegu Gorosabeli buruz ere. *Anuario de la Sociedad de Eusko-*

16. Areatzan: Benito Etxeberria Etxezarraga —67 urte—, 1980.eko apirilak 9.

17. Antonio Aldabaldereen agertu gabeko esku-idatzitik hartua.

Folklore –III– 1923. urtekoa –Eusko Ikaskuntzak argitaratua– *Creencias y ritos funerarios* gaiari eskainia dago. Bertako orrialdeetan azaltzen den ikerketa-lan batean Joxemiel Barandiaranek idatzitakoa irakur dezakegu; Juan Jose Bastegietak emandako berriak dio, Kortezubin hiletaria *negarti plazako* emakumea zela, eta *Negartijena* etxean bizi zela hain zuzen ere.

Fray Migel Alonsotegik *Crónica de Vizcaya* obraren lehen liburuko V. kapituluari idazten duenaren arabera, eta honen aipamena J.R. Iturrizaren *Historia General de Vizcayatik* jaso dut (1885: 76), Jaurerri honetan ohitura zen emakumezkoak kontratatzea, hildakoaren inguruan negar egin eta deklamatzeko, goraipatuz, errukarrizko hil-kantetan, hildakoaren balentria eta egitandiak (...). Ohitura hau Bizkaiko Foruak debekatu egin zuen baina ohitura apaizen konbentzimentuz galdu zen batez ere, «a quienes el excesivo llanto y la gritería que formaban les impedía celebrar con devoción los oficios divinos.»

Iruñeko gotzain Don Pedro Pachecok Tolosara 1541ean eginiko ikustaldi pastoral batean aldarrikatutako Dekretu batek (Mayora 1949: 92), emakumezkoen hildakoen meza kantatuetan eliz ospakizunak asaldatuz negar egitea, oihukatzea eta txalo egitea debekatzen die, hots, «que lloren, den voces y palmadas, perturbando los oficios divinos».

Heriotza baten pena eta nahigabea negarrarekin nabarmentzea ez zen emakumezkoaren jokaera eskusiboa, José García Mercadalen *Viajes por España – Juan Muret (1666/1667)* liburuan (1972: 163), XVII. mendean eta Madrilen, heriotzaren inguruko komentarioetan ikusiko dugun bezala:

(...) El cuerpo está en medio del coro (...) y en el fondo hay tres filas de religiosos y sobre las graderías del altar mayor (...), hay una media docena de frailecillos, que son los llorones (...).

Zuzi handiaren eta argizari-bildumenaren ke-giroan sartu eta eskaintza desberdinetan fijas aurretik, serorari buruz hitz bi egingo ditugu, gure egunotan bere presentziaz ahaztu bagara ere garrantzi handia izan baitu bere garaian.

Henaok dio:

Estas Freylas o Ermitañas, llamadas también en muchos pueblos del País vascongado, Seroras o Sororas y aún Beatas en algunas partes, eran unas piadosas y religiosas mujeres, doncellas o viudas muy honradas e intachables (...), cuidaban el aseo y limpieza y demás cosas necesarias para la misa y el ornato del culto sagrado de las iglesias o ermitas, que estaban a su cargo.

Alabaina, denetarik dago eta izan da Jaunaren baratzan. Eta hala, ikusiko dugu Izaskungo Saindutegiko serora bat atxilotua eta espetxeratua izan zela «hasta que restituya todo lo que de ella ha sacado ocultamente» (“bertatik ezkutuka atera duen guztia itzuli bitartean”), baina Venceslao Mayorak, bere *Historia de Nuestra Señora de Izaskun* obran (1949: 11), laster zuzentzen du esanez, oro har emakume haien jokabidea onerakoa eta eredu-garria izan zela.

Elizkizunekin identifikatu ohi da serora; horregatik, bere presentzia oso garrantzitsua izan da heriotzaren inguruko ospakizunetan, baina ez orduan bakarrik, baina bai batez ere eliza barruan. Batzuetan serorak janzten zuen hildakoa, funtzio aktiboa zuen gorpuaren segizioan eta lekuko ohitura

gutxi-asko bitxiak zirenak zaintzen zituen.

Ez naiz luzatuko hainbat autorek argitaratu dituzten xehetasunen berri ematen; nire ikerketen emaitzei buruz luze eta zabal mintzatuko naiz, nire hitzek markatzen duten arrasto nagusia jarraituz.

Berastegiko herrian, hileta-elizkizunaren ondoren serorak *zimitorioan* biltzen zituen, eta «konpañi ontatik aurrena faltatzen dan animen izenean» esan ondoren, bi Aitagure errezatzen zituen: bata hildakoaren alde eta bestea han zeudenen artean lehenengo hilko zenaren alde. Ohitura hau bertan behera geratu zen azkeneko serora orain berrogei urte inguru hil zenean¹⁸.

Elizako agintarien laguntzarekin, sakristauaren garrantzia geroz eta handiagoa zen, serorari zegozkion ahalmenak murrizten joan ziren bitartean. Bat baino gehiago dira zentzu honetako xedapenak edo erabakiak, eta esan behar dut batzuen kopia jasorik dauzkadala.

Hara, XVI. mendean Tolosako Santa Maria parrokiako seroren jantzia «saya blanca y manto negro» zen. Eta 1591n elizako zilarra seroraren zainpean geratzen den, urte horretan eginiko inbentario batean agertzen denaren arabera, bien bitartean ornamendu gehienak sakristiara eraman eta bertan jarriak ziren.

Hala ere, 1541. urtean, Iruñeko gotzain zen Pedro Pachecok agindu zuen, ordurarte serorak egiten zituen aldareetako zerbitzuak, aurrerantzean sakristauaren egitekoak izatea.

Seroren eraginean antzematen den beherakada, 1633. urteko agindu batek markatzen du. Baina emakume haienganako begirune faltarik garrantzitsue- na 1747an hasten da, ermitauen kontra ere neurriak hartzen ziren urte berean, hauek ordurarte janzten zituzten habitoak utzi eta herriko edo lurralde hartako arropa arruntak janztera behartu baitzituzten.

A consecuencia de lo resultado por S.M. a consulta del Con-sejo de 9 de noviembre de 1747 sobre el traje que debe usar los santeros o ermitaños, se prohíbe a todas las Beatas o Seroras de la Providencia de Guipúzcoa y sus Arciprestazgos (...) que en adelante puedan usar el traje y hábito que han acostumbrado hasta aquí –hábito de dominicas, franciscanas o del Carmen, con unas tocas tan venerables– (...) y que en adelante pueden continuar percibiendo los emolumentos que han acostumbrado en las oblaciones y en los funerales (...) ¹⁹.

Serora haien hileta bat gertutik bizitzeko, oso labur bada ere, Antonio Aldabaldere argitaratu gabeko eskuizkribu batez baliatuko naiz; 1691.eko data du. Aipaturiko Aldabalde elizkizun erlijioso horretara joandakoen artean zegoen.

A los 24 de junio de 1689, día del glorioso Precursor de Nuestro Señor Jesucristo, murió en el mismo Santuario –en el de Izaskun–, su Serora María Ana de Hercilla, habiendo servido en él (...) veinte y ocho años y ocho meses, con exemplarísima virtud, y doncella que hizo mucho bien a dicha Basílica. Su cuerpo fue enterrado en el dicho Santuario, en sepultura nueva, en hábito de Nuestra Señora del Carmen, y aunque fue hija y vecina de esta villa de

18. Berastegin: Amada Etxeberria Matxinea –72 urte–. *Borda Txuri* baserria, 1975.eko apirilaren 4a.

19. Seroraren berri hauek Sebastian Insausti apaiz kondairagile zenari zor dizkiot, adiskidetasun onenarekin nire eskuetan jarri zituelako.

Tolosa y tenía sepultura propia de sus padres en la parroquial de ella, su determinación y última voluntad fue el que su cuerpo quedase en Izaskun (...).

A su entierro se llevó la Cruz parroquial de esta villa de Tolosa, y todo el Cabildo y clerecía de ella con toda la música de su capilla (...). Los días martes, miércoles y viernes, 5, 6 y 8 de julio del dicho año de ochenta y nueve se celebraron en el mismo Santuario los oficios y funerales del noveno (...) y menos los oficios de segundo año, todos los otros se celebraron en la misma forma y con las mismas ceremonias de solemnidad que el entierro²⁰.

Beasainen jasotako erreferentzia bazueta, Garingo bere auzoan, *serora artoa* eta *serora garie* familia bakoitzak urtero serorari eman ohi zion artoa edo garia izaten zen. Bi lakari ziren ohituraren poderioz ezarririk zegoen neurria²¹.

Hara, 1738an Berastegiko serora eta parrokiako apaiz biltzarren artean eginiko hitzarmen bat, eta xehetasun oso aberatsak dituen gainera, *De Etnografía Vasca (Cuatro ensayos): El caserío – Ritos fúnebres – Galera del boyero – Las herrerías* liburuan argitaraturik daukat.

Eskaintzaren antzinatasunari buruz gogora ekarriko dut, Abelek bezala Kainek ere, bakoitzak bere eskaintza egin ziola Yahvéri: Abelek, artzaina zenez, ardiak eta berauen gantzua, eta Kainek, nekazaria zenez, lurreko fruituak.

Gai honetan areago murgildurik, berriro ere esango dut, eskaintza askoren jatorria zera dela, hildakoak bizi-

rik dagoenaren beharizan berberak dituen ustea.

Hala ere, adierazpen honek horrela, besterik gabe, nahas lezake. Beste modu batera esanda, gauzen bitartez eginiko eskaintza, fedearen adierazpena izan da, *heriotza* izena ematen diogun horrek eteten ez duen bizitzan.

Isastik bere *Compendio Historial de Guipúzcoa*-n dio ogi eta argizariarekin egiten direla hiletak; «además de esto en algunas partes llevan carneros y ternera» (Martínez de Isasti 1850: 204).

Gipuzcoaco Provinciaren Condairado Historia-n, aski ahantzitako obran, honela irakurtzen diogu Iztuetari (1975: 241):

Beste oitura bat ere gai oni dagoquiona eta anciñakoa chit, ezagutu izan da Guipuzcoan milla ta zazpieun urte ingururano. Euskal-errietako Jauregui, eta Echalderic aurrengoac, beretaco Nagusi Echecoandrac Jaungoicoac beregana deitzen citueneco ifinia oizuten leguezco oitura, nori bere ondasunac aguintzen cioten moducoa, ¿norc daqui, ordea, noizcoa? Illtzen zanaren goputzarequin batean eraman oicituzten elizaco ate nagusiaren ondora, batarentzaco uztaridi galaren galacoa chincharriz beteric; bestearantzac cecor galanta adarretan lore cituela; arc ari andia; onec chiquiro guicena, egaztiac, sagarrac, gaztañac eta beste gauza asco, nor nolaco emanquizunaren azpian arquitzten zan, guisa berperean bear ceban erantzun utsaldiaric bague.

Baina Iztuetak 1700 urte inguruan zokoratuak bezala ematen dituenak, jakin badakigu Domingo Agirre eta Serapio Mujikari esker, mende honeta-

20. Antonio Aldabaldere eskuidatzitik hartua.

21. Beasainen (Garin auzoan): Jose Inazio Lasa Odriozola -57 urte-, *Garin-Aurre* etxea, 1981.eko abuztuaren 2a.

ko bigarren hamarkadan ez zeudela erabat ahaztuta, oroitzapen gisa baka-
rrik baziren ere.

Gaztelako Auzitegi Gorenak Erret Probisio bat aldarrikatu zuen 1700. urtean, non hileta-elizkizunen ospakizunen inguruan beste erabakien artean honako hau dekretatu zuen: «Que quedaba prohibida por indecente la ofrenda del par de bueyes que se llevaban al atrio de las iglesias». Hala ere, ikusirik apaizek izango zuten onura-murrizketa, aipaturiko idiak berreskuratzea eta ogi, ardo eta argizariaren opariak egitea zilegi zitzaizkien.

Baina herriak sentitu eta barru-barruan bizitako ohiturak ez dira dekretuz desagertzen; gizakiari arrazoi batengatik edo bestearengatik interesatzen ez zaizkionean galtzen dira ohiturak.

«Las costumbres las hizo el tiempo con lenta presencia y lentitud como ha hecho las montañas, y sólo el tiempo, trabajando un día y otro, las puede destruir», esan zuen Pérez Galdósek. Erreferentzia hau Bonifacio Etxegarairaren “Ritos funerarios”-en ezagutu dut. Hala ere, uste dut bizitzea egokitu zaigun errealitateak nahikoa zalantzan jartzen duela hain trebeki azaldutako iritziaren balioa.

Oparia, hildakoaren familiak zuen egoera ekonomiko/sozialaren arabera-koa izaten zen; oraindik gogoan ditut gure herri eta hirietan, beren ordu jakinetan egin ohi ziren “primerisima, primera, segunda eta tercerako” entierroak. «Entierrua nahi det egitea neri bigarren klasian» dio Ramos Azkarate Otegi olerkariak, “Galtzaundi”ren letra sonatuan. R. Azkarate 1904. urtean hil zen.

Arestian aipatutako ildotik jarraituz esan behar dut, Tolosan gorpuaren bi-dea aldatu egiten zela hileta batzue-tatik besteetara kategoriaren arabera, jakin ahal izan dudanez. Eta hara, herriak umoretsu abesten zuena: «Onek badik, onek badik, goazen Korreo Kale-tik; onek ez dik, onek ez dik, goazen Arpauso Kaletik». Esan dezagun Korreo kalea kale Nagusiaren parekoa zela, eta Arpauso kalea berriz bestea baino arruntagoa.

Ohitura hau gaur egungo tolosarrek ez dute ezagutu. Niri ahoz aho etorri-tako berria da, gorpu-bidearen berezi-tasuna ahazturan erortzearekin zeriku-sia izan zuen aho batetik hain zuzen ere.

Labur-labur bada ere zenbait eskaintzari begi eman nahi diot, arlo honen ikerkuntzan jaso ditudan berriez baliaturik. Eta mugitzen garen esparru honetan, esango dut, kasu askotan komenigarria iruditzen zaidala artxi-boetako kontsultak *in situ* egindako azterlanekin alderatzea, modu honetan seguraski saiakeraren emaitza askoz hobea izango delako.

Albiasun, Nafarroako Larraun ibarrean ospatzen diren elizkizunetan kilo bat txahal-okela, ogi bat eta ardo botila batzuk eskaintzen ziren²².

Erasunen, hildakoaren etxeko batek, ordezkariaren batek edo inguruko senitartekoren batek, oihal batean bildutako ogia oparitzen du, eskaintza-
ren momentura arte, gaur egun hilobi sinbolikoa denaren gainean ipinitako saski txiki batean edukitzen duelarik. Ogia apaizaren etxera eraman ohi dute. Hildakoaren familiak halaber, oilo bat bidaltzen du elizaren aurrealdean

22. Albiasun: Josefa Mugika Otermin –70 urte–. *Matxinea* etxea, 1975.eko abuztuaren 14a.

dagoen apaizaren etxera, hiletan parte hartu duten apaizen bazkaritarako²³.

Aranazen ezagutu ditudan herritar batzuek kontatu didate nola arbasoek zikiro bizia eskaini izan zuten, hildakoaren etxeko batek eramana. Zikiroaren eskaintza honekin Orixe datorkit burura bere *Euskaldunak* poemarekin:

Ilkizunetan ari bizkor bat
bizirik, Eliz-barnean
“Domine Iesu Christe” entzun arte
daukate Eliz-atalean
Orduan sartzen operarako
Ekaiñia dutenean,
berela atera, aragi egin,
apaizentzat bazkaltzean.

Berroetan –Baztanen– hildakoa mutila bazen oilo bat bizirik eskaintzen zuten, eta hildakoa neska bazen oilanda. Eskaintzak hildakoaren auzoko emakume batek egiten zituen. Hegaztia sare batean bilduta eramaten zuen, eta hileta amaitutakoan, apaizak oiloa edo oilanda jasotzen zuen eta auzoko emakumeak beste horrenbeste egiten zuen sarearekin.

Aipatutako emakumeak *olata* deitzen zitzaion opil bat ere eskaintzen zuen, eta beste honenbeste egiten zuten hildakoaren etxeko kide bakoitzak.

Adineko bat hiltzen zenean, hurbilenekoek argizari bat eta opil bat eskaintzen zuten; gainerako eskaintzak *olata* batekoak izaten ziren²⁴.

Areson harizko maindire bat eskaintzen zen eta apaizak aldaretik erakusten zuen oparia. Azkarateko oparia ardi-izterra eta sei ogi izaten zen²⁵.

Zumaian, Artadiko San Migel auzoan, “primerako” hiletan lau anega gari eskaintzen ziren eta bi “segundakoan”²⁶.

Ogi erdi bat izaten zen Baliarraingo maizter edo errenteroaren ofrenda, eta ogi osoa etxejabearen oparia²⁷.

Heriotzaren inguruko funtzioetan oso arrunta eta hedatutako eskaintza argizari-bildumenarena eta ogiarena izan da: “argi-ogik” Tolosan eta “erre-espezik” Berastegin.

“Argi-ogik” esaten zitzaion argizari eta ogi erroskari, eta hau Animen aurreko egunean eta heriotzaren urteurrenean, hildakoaren etxean entregatzen zen. Betekizun hau lutoz zegoen familiaren senitarteko, auzoko eta lagunek betetzen zuten.

“Erre-espezik” deitzen zioten berriz, “segundako” hiletetan Berastegin egiten zuten ogi eta argizari eskaintzari²⁸.

Opari hauek ere gure artetik zokortuak daude gaur egun eta izpiritu erlijioso ortodoxoa izena emango dioten horretan ezagutu genituen, elizaren inguruko bizitzarekin identifikatzen ditugularik.

Oñatiko Arantzazu auzoko “Soroandieta” baserriko andreari entzun nion,

23. Erasunen: Mari Bengoetxea Retegi –78 urte–. *Jooneberria* etxea, 1982.eko abuztuaren 12a.

24. Berroetan (Baztanen): Konzezion Irigoien Urrutia –72 urte–. 1982.eko uztailaren 22a.

25. Areson: Migel Barandiarain Labayen –54 urte–. *Olatxeta* etxea, 1971.eko ekainaren 30a.

26. Zumaian (San Migel Artadi): Jose Manuel Etxabe Aierza –74 urte–. *San Migel Zar* baserria, 1980.eko apiriaren 13a.

27. Baliarrain: Dionisia Atxa Intxausti –70 urte–. *Irabi-azpi* baserrian jaioa, 1981.eko maiatzaren 11a.

28. Berastegi: Amada Etxeberria Natxinea –72 urte–. *Borda Txuri* baserria, 1975.eko apirilaren 4a.

bere arbasoentzat erleek izaera sakratua zutela, purgatorioko arimak argiztatzeko argizariak beraien abaraskaz egiten direlako.

Soroandietako etxeoandre honen arabera, errefrau-bilduma aberastu eta mitologiaren esparruan presente dagoen erlea, ezin da diruaren bitartez salerosketarako objektu bat izan. Bere salerosketa, urteetako trukearen formula erabiliz egingo da²⁹.

Baina egungo errealitateak ez dio beti behintzat esandakoari erantzuten, Franzisko Inazio Aranbururen eskuizkribu bat dela medio ikusi ahal izango dugun bezala; Legorretako herrian 1778an datatua dago:

Item a Lucía de Arocena le dí sesenta reales por una colmena de abejas³⁰.

Carlos III.aren Erret zedulak, 1787ko apirilaren 3an datatuak, eliza barruko ehorzketak debekatzen zituen eta zelai irekian hilerrriak sortzea agintzen zuen. Baina agindu honen betekizun puntualari ohituraren indarra kontrajartzen zitzaion, jendearen animoetan oso errotuak zeuden beste arrazoi erlijioso batzuez gain. Hau horrela, Lege honen aplikazioa atzerapen handiz bete zen oro har, Gipuzkoako Agintari Politikoen hilobiratze lekuei buruz helarazitako komunikatuari udalek emaniko erantzunetan ikus daitekeen legez, eta hori da nik ezagutzen dudana. Udalek emaniko erantzun bat baino gehiago XIX. mendeko lehen hereneko urteetan datatuak daude, eta batzuetan dio, zelai librean hilerrri bat ezartzea oraindik arazo bat dela.

Arrunta eta hedatutako ohitura izan da gorpua hilerriraino laguntzea eta han lur-apur bat edo harriren bat gainera jaurtikitzea, hildakoari honako esaldi hau edo antzekoren bat eskaintzen zitzaion aldi berean: «Zeruan alkar ikusi dezagula».

*Arri batek
sekulako estaltzen du
izenik den andiena,
mundu eroak emen ainbeste
estimatu oi duena*³¹

José Blanco White –XVIII-XIX mendeak– idazleak dio (1972: 242) Espainiako zenbait herritan bizirik zegoela hilobiei harriak jaurtikitzeko ohitura, eta denboran atzera eginez eta ohituraren egungo esanahitik kanpo, esaten du bidaiariek harriak botatzen zituztela «como señal de repulsión, sobre el montón que cubre los restos de un criminal». Lehenengo kristauak era berdinean adierazten zuten beren gaitzezpena jentilen hilobietan.

Herri batzuetan entzun ditut ondorengo esaldi hauek: *Gorputz ona euri-tsua* –Pertsona on baten heriotzak, euria dakar–. *Arima ona mundutik, uri erauntsie zerutik* –Mundua uzten duen arima onak euri-erauntsia zerutik. Bai eta *Gorputz txarra, aizetsua*.

Matxinbentan eta Aiako herrian esan zidaten, egun haizetsua zenean, honela esaten zela: *Letradu zarren bat il dek*.

Aspaldi joandako urteetan, hileta elizkizunak ongi hornitutako mahai baten inguruan amaitzen ziren, eta behin baino gehiagotan, hitz egiten ari zaizuen hau eserita egona da.

29. Oñati (Arantzazu): Apolonia Biain.

30. Nere esku-idatzi batetik hartua.

31. Aita A. Kardaberetz, S. J., in Aita Onaindia: *Mila Euskal Olerki Eder* –I–, 241 orr. "Gorputz ilari".

Ondorengo ohar hauek 1755. urtekoak dira, eta nire esku dauzkadan lehen aipatutako Franzisko Inazio Aranbururen eskuizkribuetatik ezagutzen ditut:

Item las ceras y el hábito para el entierro de mi difunta madre..... 75 rs.
y para las honras, en cera, especias, azúcar, chocolate y queso..... 100 id.

En todo175 rs.

Item un novillo y un carnero para dichas honrras 178 rs.

Item una carga de vino para dicha funcion de honras 82 rs.

Liburuxka berean agertzen diren beste apunte batzuen bitartez atera daiteke aipatzen diren espeziak azafra, iltzekanela, kanela eta piperhautsa izan zitezkeela.

Iruñean 1531. urtean ospatu zen Sinodoan –Sebastián Insaustiren azterlan batetik bildu dut erreferentzia (1971: 478)– debekatu egin zen elizaren barnean otorduak egitea, berari zor zitzaion begiramenduaren izenean, eta kontrako jokabidea harrezatenak eskomiku pena eta florin bana ordaintzera mehatxatzen ziren.

Ezagutzen dut 1539ko irailaren 19ko Erreal Probisio bat eta hor Gasteizen egoitza zuen epailea beharturik zegoen hileta-egunetan egin ohi ziren bazkari, edate eta neurritz gaineko gastuen berri ematera³².

Julio-César Santoyoren *Viajeros por Alava. Siglos XV a XVIII* liburutik (1972: 75) Pedro Mantuanoren iruzkin bat jaso dut, Gasteizko hiria eta 1615. urteari dagokiona:

Quando el Santísimo Sacramento, o muere algun vezino, los mayores les avisan a todos los del barrio, y dándoles las hachas tenidas para semejantes actos, les hacen con ellas acompañar al Señor, o al cuerpo a la sepultura, llevándole en hombros los vezinos más cercanos a su casa. Quando se juntan las cofradías a sus banquetes, la Ciudad embía un Alguazil, o alguna persona del Ayuntamiento que esté en ellos, con lo cual se conserva la paz entre todos.

Aipatzen ari garen abusu hauek baitaio, meza berrietara, etab. etara hedatzen ziren Madrilen 1579ko otsailaren 4ko zigilua daraman erret Kontseiluaren zedula batean ikus daitekeenez.

Gipuzkoako Foruek debekaturik zeuzkaten ehorzketa eta hileta-ospakizunetako bazkariak «non eta –literalki kopiatu dut– hirugarren maila bitarteko Ahaideak ez diren»³³. Gauza bera ageri zaigu, Domingo Ignacio de Egañak 1780an, “El Guipuzcoano Instruído” delakoan dioenaren arabera. Gerorago, Gipuzkoako Batzar Nagusiek ere gogoan hartzen zituzten abusu hauek. Hona Pablo de Gorosabelek (296) zer dioen: «los muertos destruían a los vivos».

Baina zera esan behar dugu: xedapen-erabakiok hain zorrotzak izan arren, eskasa zela arrunt hauen eragin-kortasuna, izan ere herriak bizi-bizirik zeuzkan ohiturak baitziren. Ohitura eta usadio hauek besterik gabe dute desgertzeko bidea hartuko, herriak alferreko eta anakronikotzat ematen ditueanean.

32. Colección de Cédulas, Cartas-Patentes, provincias, Reales Ordenes y otros documentos concernientes a las Provincias Vascongadas –Tomo IV–. *Provincia y Hermandades de Alava*.

33. *Nueva Recopilación de los Fueros* (...). Impreso en Tolosa por Bornario de Ugarte (...). Año 1696, 286 orr.

Baina bizidun eta hildakoaren arteko harremana ez da beti hilerrian amaitzen. Agerpenak aipatu nahi ditut orain. Nik neuk ezagutzen ditudanek badute elkarren antza; forman ez bada ere, bai funtsean. Bakoitza bere ingurunean, entzunda bezalaxe, ondoko bi hauek aipatuz, amaituko dut nire hitzaldia.

Etxegarate aldean, “Galardi” izeneko lekuan, ba omen zan artzai bat ezerkin bildurtzen etzana, izukaitza.

Gau hartan, Ataunen bi apaiz gazte arkitzen omen ziren, eta alkarrei esan omen zioten artzaia bildurto egin behar zutela.

Ortarako rokete zurik jantzi eta gau-bez, pago zuaitz baten gainean antsika asi omen ziran, artzai txabolaren urbil.

Onela, artzaiak loik ezin hartu eta txabolatik irtenez, bat-batean antsilariei galdetu omen zioten:

– Zer nai dezue?

– Purgatorioko animak gera eta meza beharrean gare zerura joateko.

Au entzunik eta ikusirik, artzaiak galdetu omen zioten dirurik baalzuten.

– Ai, dirua euki bagendu!

– Ba, galduk zerate, artzaiak erantzun. Gure errian bazeudek bi apaiz gazte, eta dirurik gabe golperik ez ditek jotzen.

Au esanez, bat-batean txabolara sartu omen zan berriro. Bañan ala ere, arbola gañeko apaizak antsika jarraitzen zuten, ixkamila bizian. Au honela, artzaiak makila luze bat artu eta berekin, zuaitzera joaz, “arima-erratuek”, makilkatzen asi zan, eta bai azkar ere, altzuten bezala, auek purgatoriorako bidea berriro artu³⁴.

Hemen badirudi artzaina inguru egoki batean aurkitzen zela agerpenari buruz; baina zentzu hartzailea esaten dena falta zitzaion, eta “purgatorioko bi animak” egurtuz egoera ebatzi zuen.

“Errokara” edo harilketa lanak egitera biltzen ziren neskatila batzuk Igoako etxe batean (Basaburua, Nafarroa) eta gau askotan hiru ezkil-hots entzun ohi zituzten. Lehen batean mutil gazteren batzuren txantxak zirelakoan egon ziren. Baina, halako egun batean, mutil gazteekin solasean hasita, hauek deusik ez zekitela horretaz esan zieten.

Hori horrela, gau batez, aipaturiko ezkil-hotsak entzutean, eliz-atarira jo zuten gazte guztiek, eta atearen zirriritutik begira jarrita non ikusten duten aldarean argia zegoela; baina ez zen inor ausartu atetik barnera sartzera.

Orduan, herriko artzain gizarajo bat gogora etorri zitzaion, eta honi ea prest zegoen elizara sartu eta aldarera hurbiltzeko galdegin zioten. Honek ez zuen ezerean gupidarik izan eta herriko gazteek agindua beteaz, aldarera hurbildu eta herriko apezarekin topo egin zuen. Apeza, aspaldi hil zen, behar bezala jantzita, meza ematera zihoan. Neska eta mutil gazteek meza-laguntzaile egiteko agindu zioten artzainari eta honek horrelaxe egin zuen.

Gerora, artzainari galdegitean apaizak zer egin zuen meza amaitzean, argiak itzali eta desagertu egin zela erantzun zuen artzainak³⁶.

Herri horretako beste baserri batean beste zertzelada baten berri ere jakin nuen: hiru kolpe leun sorbaldan eman eta agurtu zuela apaizak meza-laguntzailea esan zidaten. Igoako apaizaren desarpenarekin amaitzen dut hitzaldia. Besterik ez. Mila esker.

34. Idiazabalen (Urtsuaran auzoa): Agustina Aierbe Goikoetxea –51 urte–. *Pagoeta Goikoa* baserria, 1975.eko irailaren 12a.

35. Igoan (Basaburua): Antonio Urriza Barberia –78 urte–. *Otxanbela* etxea, 1985.eko urriaren 20a

Bibliografía

- Aguirre, D., (1918): *R.I.E.V.* IX, 60-70.
- Berlioz, H.: *Memorias*, Taurus.
- Blanco White, J., (1972): *Cartas de España*, Alianza Editorial, Madrid.
- Garmendia Larrañaga, J., (1984): *Carnaval en Navarra*, Haranburu editor, S.A., Durango.
- Girard, R., (1982): *El misterio de nuestro mundo. Claves para una interpretación antropológica*, Ediciones Sígueme, S.A., Madrid.
- Gordon Childe, V., (1972): *Los orígenes de la Civilización*, Fondo de Cultura Económica, Madrid.
- Henao, G. de, (1895): *Complementos a la Obra de Averiguaciones Cantábricas e Ignacianas*, VI.
- Hobbes, TH., (1976): *Del Ciudadano Leviatán*, Editorial Tecnos, Madrid.
- Insausti, S., (1971): "Relaciones de Vecindad. Guipúzcoa. Siglo XVI", *Munibe*, 4. faszikulua, [Homenaje a D. José Miguel de Barandiaran], Donostia.
- Iturriza y Zabala, J.R. de, (1885): *Historia General de Vizcaya*, Imprenta de Cipriano Lucena y Compañía, Bilbo.
- Iztueta, J. I. de, (1975): *Guipuzcoaco Condaira edo Historia*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Larramendi, M., (1969): *Corografía o Descripción General de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipuzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A., Donostia.
- Martínez de Isasti, L., (1850): *Compendio Historial de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa [1625]*, Baroja, Donostia.
- Mayora y Tellería, W., (1949): *Historia de Ntra. Sra. de Izaskun*, Tolosa.
- Mercadal, J.G. (1972): *Viajes por España –Juan Muret– (1666/1667)*, Alianza Editorial, Madrid.
- Mugica, S., (1918): *R.I.E.V.* XI, 100-105.
- Otero Pedrayo, R. (1979): *Historia de Galiza*, I. *Etnografía*, [Vicente Risco], Akal Editor, Madrid.
- Ruiz de Larrinaga, P. J.: "Samaniego Vasco y Vascófilo", *Euskalerrriaren Alde* 24, 245-255.
- Palacios Fernández, E.: *Vida y obra de Samaniego*, Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria.
- Santoyo, J.C. (1972): *Viajeros por Alava. Siglos XV a XVIII*. Obra Cultural de la Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria.
- Sorosabel, P. de: *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa*, IV. lib., Impr. Eusebio López, Tolosa.
- Verhaeren, E. & Regoyos, D. de, (1963): *España Negra*, Taurus Ediciones, S.A., Madrid.